



TOLOSALDEA - GOIERRIKO PERTSONA
GORREN ELKARTEA

ASOCIACION DE PERSONAS SORDAS DE
TOLOSALDEA - GOIERRI



NAZIOARTEKO ZEINU HIZKUNTZAKO XI. ZINEMALDIA – 2020ko URRIAREN 24an TOLOSAN (GIPUZKOA) FILM LABURREN LEHIAKETAREN OINARRIAK

1.- Film labur lehiaketako parte-hartzea 18 urtetik gorako egile guztientzat irekita dago. Era indibidualean eta taldean parte hartu daiteke. 18 urtetik berako parte hartzaileak guraso edo tutoreen baimena eduki beharko dute.

2.- Lehiaketan aurkeztutako lana, zuzendaritza, muntaia, aktoretza, argazkilaritza, gionista... pertsona gorrek nahiz entzuleek eginda izan daiteke. (Ezingo dute parte hartu lan hauetan ibiltzen diren entzule profesionalak).

Pertsona gorren ahalegina indartu eta sustatzeko, sariren bat entzuleren bati erortzen bazaio, ez luke sari ekonomikorik jasoko, ezta parte hartzeagatik jasotzen den hobari ekonomikorik ere baina sailkapen orokorreko postua mantenduko luke eta saria txapela izango litzateke. Erabaki hau beti epaimahaiak izango luke.

3.- Film laburren gaiak askeak izango dira. Erreportajeak, iragarkiak, bideoklipak etab.... ez dira kontuan hartuko eta lehiaketatik kanpo geratuko dira.

Dokumental edo film luze bat aurkeztu nahi bada, aurretik zinemaldiko antolatzaileei abisatu beharko zaie beraz zinemaldian proiektatzeko baina ezin izango du lehiaketan parte hartu.

4.-Lehiaketan parte hartzea doakoa izango da.

5.-Beste lekuetan aurkeztutako edo eta estreinatutako film laburrak parte hartu dezakete lehiaketan. Ezingo dute aurkeztu aurreko urteetan GAINDITZENeko film lehiaketan parte hartu zuten filmak.

Azken bi urteetan Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan sarituak izan diren film laburrak parte hartu dezakete lehiaketan beraien filmak erakusteko baina ez dute aukerarik izango saririk eskuratzeko, ez eta parte hartzeagatik jasotzen den hobaririk eskuratzeko ere. Zuzendaritza batzordeak izango du azken film hauen parte hartzea erabakitze eskubidea.

6.-Film laburrak Zeinu Hizkuntzan izango dira. Formatu espezifikoan eta ezaugarri hauekin aurkeztuko beharko da:

- MOV-a Formatua edo MP4 eta 1080HD FULL- erresoluzioa
- Gaztelaniaz azpigituluak txertatuta bidaltzea ezinbestekoa izango da
- Film laburren iraupena: 5 minutuko minimoa eta 30 minutuko maximoa.



TOLOSALDEA - GOIERRIKO PERTSONA
GORREN ELKARTEA

ASOCIACION DE PERSONAS SORDAS DE
TOLOSALDEA - GOIERRI



- Minimoa betetzen ez dutenak eta maximoa gainditzen duten film laburrak ezingo dute parte hartu.

7.- Inskripzioa on line egingo da eta hurrengoa aurkeztu beharko da:

- Parte hartzailearen argazkia (zuzendari, gionista...) JPG edo PDF formatuan, A4ko erresoluzio maximoarekin.
- 720. Gehienez minutu bateko aurrerakina, MOV edo MP4 formatuan, gutxienez 720ko erresoluzioarekin.
- Film laburraren kartela, JPG edo PDF formatuan eta gehienez A3 formatuan.

8.- Inskripzioa egin eta film laburrak bidaltzeko moduak:

- **Festhome.com** edo **Movibeta.com**.
- **Wetransfer** (helbide elektronikoa: deaffilmstolosa@gmail.com)
- **Usb/Pendrive** korreo postal bidez, helbidea honetara:

Asociacion de Personas sordas de Tolosaldea – Goierri (GAINDITZEN)
Calle Emeterio Arrese, 2
20400 Tolosa (GIPUZKOA)

Bidalitako materiala (usb/cd...) ez da itzuliko.

9.- Inskripzio data 2020ko irailaren 7an amaituko da. Data amaitu ostean ez da filmik onartuko, ezta kopiarik edo aldaketarik ere.

10.- Inskripzio epea amaitzean, gutxi gorabehera hilabeteko tartean, zinemaldiko batzordeak hautatuak izango diren filmak zein izango diren erabakiko du. Aukeraketa hori parte-hartzaile guztiei **email** bidez jakinaraziko zaie, eta **Gainditzeneko web orrian** eta **Facebooken** ere publikatuko dira. Honez gain, kategoria bakoitzetik 4 nominatu aterako dira eta hauei lehenagotik korreo elektronikoa edo Facebook bidez abisatuko zaie.

Hautatuak izan ez diren filmak hurrengo edizioetara aurkeztu ahalko dira. Era berean, erakundeak filmak gordeko ditu eta hurrengo edizioetan hautatuak izan ahalko dira.

- 11.- Sariak:
 - Film labor onenaren saria: 350€ , txapela eta ziurtagiria
 - Zuzendari onenaren saria: 100€, txapela eta ziurtagiria
 - Gidoi onenaren saria: 100€, txapela eta ziurtagiria



TOLOSALDEA - GOIERRIKO PERTSONA
GORREN ELKARTEA

ASOCIACION DE PERSONAS SORDAS DE
TOLOSALDEA - GOIERRI



- Muntai onenaren saria: 100€, txapela eta ziurtagiria
- Argazki onenaren saria: 100€, txapela eta ziurtagiria
- Aktore (gizonezkoa) onenaren saria: 100€, txapela eta ziurtagiria
- Aktore (emakumezkoa) onenaren saria: 100€, txapela eta ziurtagiria
- Gazteen saria*: 100€, txapela eta ziurtagiria
- Publikoaren saria: txapela eta ziurtagiria
- Aipamen berezia: Aktore, zuzendari, gionistei... 18 urtetik beherakoek ere sari hau eskuratzeko aukera izango dute.
- Sailkapen orokorreko entzuleen film hobereena: Txapela. (Epaimahaiaren erabakiaren arabera)

*Gazteen sarian, soilik zuzendariarentzat izango da (zuzendaria gaztea). 18 eta 30 urte bitartekoentzat izango da. Film laburrak aipaturiko baldintza guztiak bete beharko ditu baita inskripzio orriko film eta zuzendari gaztearen saila ere. Gaztearen sariaz gain, beste sariak ere eskuratu ahalko ditu. Funtsezkoa izango da inskripzio fitxa betetzea eta NAN dokumentuaren fotokopia aurkeztea. 18 urte baino gutxiago izanez gero gurasoen edo tutoreen baimena beharko du.

12.-Epaimahaiak edo zinemaldiko batzordeak hautatzen duen film bakoitzak, nominazioen funtzio mailan, honakoa jasoko du:

- Lehen 4 nominatu onenak: 200€ bakoitzak
- 5. nominatutik 10.nominatura: 100€ bakoitzak

Urriaren 24an proiektatuko diren film labur bakoitzeko parte hartzaile bati, parte hartzeaz gain, ostatua eta dietak ordainduko zaizkio (parte hartzea+ 130€). Gonbidapen honek urriaren 24ko ostatua eta dietak barne hartzen ditu. Bertan ez da sartzen jatorritik Tolosarako desplazamendurik, ezta laguntzaileen gasturik ere. Ostatua aurkitzeko eta erreserbatzeko ardura parte hartzaile bakoitzarena izango da. Derrigorrezkoa izango da ostatua Tolosaldean erreserbatzea. Ostatu eta dietengatik emango den plus ekonomikoa jasotzeko (130€), parte hartzaileak ostatuak eginiko faktura eta dieten tiketak aurkeztu beharko ditu. Parte hartzaile atzerritarren kasuan, ostatua aurkitzeko laguntza eskainiko zaie eta erreserba elkartearen bidez egingo da.

Edozein kategorian hautatua izan den parte hartzailea 2020ko urriaren 24an Tolosan egingo den sari banaketara agertzen ez bada, dagokion sari ekonomikoari eta parte



TOLOSALDEA - GOIERRIKO PERTSONA
GORREN ELKARTEA

ASOCIACION DE PERSONAS SORDAS DE
TOLOSALDEA - GOIERRI



hartzagatik jasotzen den hobari ekonomikoari %50 deskontua egingo zaio. Zuzendaritza batzordeak erabakiko du diru hori nola gestionatu (beste parte hartzaileen artean zatitzeko erabili ahalko luke, edo elkarteari interesekoa iruditzen zaion dokumental edo film labur bat proiektatzeko erabiliko ahalko luke. Kasu horretan zuzendariarekin negoziatuko luke.) Sari banaketara ez agertuz gero, ez da ostatua eta dietengatik plus ekonomikorik emango.

Sariei eta parte hartzei IRPF agatik dagokion %koa deskontatuko zaie.

13.- Film laburren proiektzioak eta sari banaketak Tolosako Topic- ean izango dira 2020ko urriaren 24an.

14.- Parte hartzaileak lehiaketa honetan parte hartzean alde batetik, GAINDITZEN Elkarteari Tebistan, erlazionatutako web orritan, blogetan, Facebooken, Youtuben... hedatuko den iragarki txiki bat egitea baimentzen dio, gehienez ere hautatutako filmen minutu bat eta argazki batzuk erabiliz. Bestetik, elkarteak etorkizunean film hauek inongo irabazi asmorik gabe erabili ditzakela baimentzen dio.

Bestalde, GAINDITZEN elkarteak film labur horiek erabili ahal izango ditu irabazi asmorik ez duten helburu hezitzaileentzat.

15.- Behin zinemaldia amaituta, Zuzendaritza batzordeak eskubidea izango du EAE barruan etorkizunean egingo diren proiektioetan hautatutako 5 laburmetraia erabiltzeko. Proiektzio hauetako batean irabazi ekonomikoa edukiz gero, GAINDITZEN elkarte eta film laburraren sortzaileen artean banatuko da.

16.- Lehiaketako oinarri hauek ONARTZEA ezinbestekoa izango da. Horretarako, behean atxikitua dagoen PARTE HARTZE ORRIA beteta eta sinatuta aurkeztu beharko da. Oinarri hauek ez onartzen ez badira, ezin izango da zinemaldian parte hartu eta inskripzioa deuseztatuko da.

17.- Azkenik, batzordeko langileenganako eta pertsona guztienganako errespetua eskatzen da. Inork arazorik izango balu, erreklamazio orriak eskuragarri izango lituzke.

18.-Ezinbesteko arrazoiengatik oinarri hauek erreformatuak izan daitezke. Sortu daitekeen edozein egoera eta oinarri hauetan zehaztuta ez dagoena Zinemaldiko antolakuntzak ebatziko du, aitzakiarik gabe.



PARTE-HARTZE ORRIA "FILM LABURRA"

IZENA EDO ELKARTEAREN IZENA					
HELBIDEA					
POSTA KODEA		HERRIA			
LURRALDEA		MUGIKORRA (WHATSAPP)			
KORREO ELEKTRONIKOA					
IZENBURUA					
IRAUPENA		FILMAREN GENEROA			
PRODUKZIO URTEA					
FORMATUA MOV , MP4 edo 1080HD erresoluzioa		KOLOREA		TXURI BELTZA	
FILMAREN LABURPENA					



TOLOSALDEA - GOIERRIKO PERTSONA
GORREN ELKARTEA

ASOCIACION DE PERSONAS SORDAS DE
TOLOSALDEA - GOIERRI



IZEN/ABIZENAK	
ZUZENDARIA	
MUNTAIA	
ARGAZKIA	
AKTOREA (EMAKUMEZKOA)	
AKTORE (GIZONEZKOA)	
GAZTEEN AURKEZTEN (ZUZENDARIA)	SARIRA DENA

De acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, yo D/D^a con DNI o pasaporte autorizo a la Asociación de Personas Sordas de Tolosaldea – Goierri “GAINDITZEN” de Tolosa (Gipuzkoa) la utilización de mis datos exclusivamente para los fines relacionados con mi solicitud de participación, conociendo el derecho a acceder, modificar y cancelar la incorporación de mis datos según los términos que se establezcan en la legislación vigente:

.....an (Herria), 2020 koren(hilabetea),an (eguna).

Inscripción en el registro de asociaciones del Gobierno Vasco con el N^o AS/G/10132/2002 – CIF G 20792073

SINADURA: